

alokairu
alquiler
affordable

eskuragarri
asequible
rental

Jardunaldia Jornada


SOLUZIOAK
SOLUCIONES
SOLUTIONS

**Alokairu eskuragarriaren
erronkarako irtenbideak**
Soluciones al reto del alquiler
asequible

BILBAO | 2019/11/28 | Euskalduna Jauregia Palacio Euskalduna

**2019ko azaroaren 28ko jardunaldietara joan ziren
pertsonek gogobetetasun-mailari buruzko azterketa**

2019ko abenduaren 16a

- 1. Irismena**
- 2. Bertaratu zirenen gogobetetasun-mailari buruzko azterketa**
 - Balorazio teknika
 - Saio bakoitzaren interesaren balorazioa
 - Alderdi logistikoen balorazioa
 - Jardunaldiaren balorazio orokorra
- 3. Etxebizitzaren Euskal Behatokiak antolatuko dituen jardunaldietarako gai interesgarriak**
- 4. Iruzkina eta hobetzeko iradokizunak**

Eranskina: Galdetegia

- ▶ Dokumentu honek **Alokairu eskuragarriaren erronkarako irtenbideak** izeneko jardunaldira joan ziren pertsonen gogobetetasun-maila agertzen du. Jardunaldia 2019ko azaroaren 28an egin zen, Bilboko Euskalduna Jauregian.
- ▶ Txostenak gogobetetasun-maila ebaluatzen du, **jardunaldiaren alderdi teknikoekin, egin diren saioekin eta alderdi logistikoekin** zerikusia duten zenbait alderdiri buruz. Horretarako, galdetegi bat erabili da, telematikoki autoadministratua inkestak kudeatzeko software baten bitartez. Joan ziren guztiek izan zuten aukera gogobetetasun-mailari buruzko galdetegia erantzuteko, eta 141 pertsonen lagina lortu da.



* Balorazioa 1etik 10era bitarteko eskala baten bidez egin zen; 1 zen puntuaziorik baxuena, eta 10 altuena.

2. Parte-hartzaileen gogobetetasun-mailari buruzko azterketa

BALORAZIO TEKNIKOA

- Landu diren gaien interesa
- Hizlarien eta moderatzaileen kalitatea

9

9

9

Jardunaldiaren batez besteko balorazio teknikoa bikaina da, 9 puntu eman baitizkiete bai landu diren gaiei bai hizlarien eta moderatzaileen kalitateari.

SAIO BAKOITZAREN INTERESAREN BALORAZIOA

- 1: saioa. Alokairu-merkatuaren erronkak. Alokairu-merkatu eskuragarri baterako politika ekonomikoaren gakoak
- 2: saioa. Euskadiko alokairu-merkatuaren egungo egoera eta alokairu soziala sustatzeko neurri berriak
- 3: saioa. Europako esperientzia arrakastatsuak
- 4: saioa. Mahai-ingurua: alokairu eskuragarriko erronkak eta konponbideak

8,25

8

8

9

8

Egin diren saioen batez besteko balorazioa oso ona da, eta bi saio nabarmentzen dira: batetik, 3.a, parte-hartzaileen % 34k 10 eman baitzion, eta % 24k 9, eta, bestetik, 4.a, % 24k 10 eman baitzion, eta % 25ek 9.

1. eta 2. saioei dagokienez ere, % 20k 10 eman zien, eta % 24k eta % 22k 9, hurrenez hurren.

ALDERDI LOGISTIKOEN BALORAZIOA

- Egoitza
- Aurretiazko informazioa
- Jardunaldiaren iraupena

8,33

9

8


8

Alderdi logistikoek batez besteko balorazio positiboa lortu dute.

2. Parte-hartzaileen gogobetetasun-mailari buruzko azterketa

GOGOBETETASUN-MAILA OROKORRA = 8

SATISFACCIÓN GLOBAL / GOGOBETETZE-MAILA OROKORRA



(*) Gai interesgarriak - I

1. Etxebizitzarako erantzunak sektore publikotik demografia-aldaketaren aurrean. Bizitza osorako etxebizitzak; etxean zahartzea.
2. Etxebizitza eskuratzeko ereduak, *silver economy* delakoaren barruan.
3. Cohousing formulak: publikoa eta pribatua, landakoa eta hirikoa, Europako formulak, Espainian eta Euskadin aplikatzeko aukerak.
4. Eraikinen birgaitze-obra hiri-berroneratze osora. Eskala- eta estrategia-aldaketa.
5. Etxebizitza publikoa okupatzea.
6. Etxebizitza eta klima-aldaketa.
7. Epe luzerako etxebizitza politikak. Babes soziala etxearen bitartez eta hirugarren sektorearen papera. Etxebizitzen eraginkortasuna eta jasangarritasuna vs gastu publikoa. Biztanleri inkestak eta gizartearen analisi sakonak. Zer beharko dugu etorkizun hurbilerako?
8. Cohousinga, beste aukera bat alokairuko etxebizitza publikoa diseinatzeko, gizarte-interesa baitu. Askotariko kolektiboentzat: belaunaldiartekoak, gazteak, tratatu txarrak jasandako emakumeak, adinekoak... Alokabideri etxebizitza lagatzeko aukera.
9. Hausnarketa espezifikoa kolektibo jakin batzuetan (esaterako, gazteak), eta kolektibo horiek parte hartzea.
10. Alokairu sozialaren benetako arazoak. Nola kudeatu alokairu sozialaren integrazioa. Hobekuntza-neurriak, alokairu libreari dagokionez. Etxebizitza-kopurua eta prezioak.
11. Etxebizitza partekatutako erabilera-lagapeneko erregimenean. - Erabilera-lagapeneko etxebizitzak kooperatibak, irabazi-asmorik gabekoak. Kooperatibak, esperientziak landa-eremuan eta hiri-eremuan. - Irabazi-asmorik gabeko ekimen pribatuak babestea. - Bestela merkatura ateratzeko zailtasunak dituzten eraikinak berreskuratzea. - Ingurunea birgaitzea eta berreskuratzea. - Alokairuaren interakzioa dentsitate baxuko inguruneetan (landa-eremuan).

(*) Gai interesgarriak - II

- 12.DSBEa kobratzen duten pertsonen (bereziki ijito etniakoek eta etorkinek) alokairuko pisuak edo apartamentuak aurkitzeko dituzten zailtasunak. Gaur egun, harrera-etxebizitzak gainezka daude; izan ere, etxebizitza horietatik atera daitezkeen pertsonen ezin dute alokairuko etxebizitzarik aurkitu, ez baitute lan-kontraturik.
- 13.Etxebizitza eskuratzeko ohiko ereduaren alternatibak (erostea vs alokatzea). Adibidez, etxebizitza kolaboratiboak edo cohousinga.
- 14.Administrazioen arteko koordinazio-tresnak eta lankidetzak publiko-pribatuko tresnak, babes publikoko etxebizitza-parkea handitzeko eta 2/2006 eta 3/2015 legeen xedapenak betetzeko.
- 15.Inspiraziotzat har ditzakegun eredu eta esperientzia gehiago ezagutzeko aukera izatea.
- 16.Gustatuko litzaidake alokairuko etxebizitzak eskatzen dituzten pertsonen profila azter zedila, baita sistematik kanpo geratzen diren pertsonena ere.
- 17.Etxebizitza eta eraikin eskuragarriak ezartzea, merkatuan dauden material teknikoekin eta emaitza teknikoak, akustikoak, termikoak eta ekonomikoak optimizatuta, gizartearentzat bizitzeko modukoa eginda eta konponbideak mantenduta.
- 18.Informazio-sistemak etxebizitzaren merkatuan.
- 19.Cohousing. Etxebizitza kolaboratiboak erabileraren emakida erregimenean. Legezko alderdiak. Erakunde publikoen inplikazioa.
- 20.Etxebizitza kolaboratiboari buruzko hirigintza-araudia eta legeria.
- 21.Jardunaldian jorratutako gai batekin lotuta. Etxebizitza sozialak, erosketa edo alokairuko etxebizitzak.
- 22.Etxebizitza-parke publikoa eta haren kudeaketa.

(*) Gai interesgarriak - III

23. Etxebizitza eta gazteria.

24. Gai praktikoetara joango nintzateke ni. Lurralde bakoitzean antolatuko nituzke, eta uneko esperientziak eta eskarmentuak bideak markatzen dizkigu, eta arduraz eta koherentziaz lur-azalera jabetzak eskubideak saldu gabe, orain urte batzuk EJKo Etxebizitza Sailak orain urte batzuk egin zuen eran egin gabe. Opariak berriz ere.

25. Espainiako estatuko autonomia-erkidegoetako alokairu eskuragarria.

26. Arrazoizko prezioak lortzeko esperientzia alternatibo gehiago sakonki ezagutzen jarraitzea (cohousinga, Bartzelonako maizterren sindikatua, Vienako kooperatibak) eta ahotsa ematea gehiegizko alokairuek zuzenean eragiten dieten pertsonei (gazteak, langileak, DSBEa kobratzen dutenak, pentsiodunak, etxegabetuak...). Ahotsa ematea EAEko ghettoetan bizi diren pertsonei, zer eskatzen duten eta nola bizi diren jakiteko.

27. Arratsaldeko saioak kentzea; goizeko saioa luzatzen ahalegindu, eta arratsaldez saiorik ez egitea.

28. Oro har, asko gustatu zait. Bereziki, goizeko lehen zatian sortu den eztabaida.

29. Cohousinga, etxebizitza kolaboratiboak eta irabazi-asmorik gabeko etxebizitza-kooperatibak, lankidetzaren publiko-pribatuko formula gisa. Adibideak. Gaur egungo eta etorkizuneko egoera Euskadin.

30. Kolektibo jakin batzuetarako irtenbide espezifikoak.

31. Cohousinga, erakunde publikoekin elkarlanean.

32. Cohousinga.

(*) Gai interesgarriak - IV

33. Interesgarria izango litzateke jakitea zer eragin duen plangintzak edo erregulazioak hirian eta etxebizitzan. Erregulazioaren kalitatea eta kantitatea aztertzea.
34. GJH etxebizitzaren eremua ebaluatzea eta administrazioen inplikazioa.
35. Erronka demografikoa herrietako etxebizitza hutsak okupatzearekin eta landa-eremuko autoenplegua eta telelana sustatzearekin lotzea; bereziki, Araban. Horrela, aipatutako guztia lortzeaz gain, ingurumenari lagunduko diogu, hirietara joan behar izan gabe.
36. Gai oso interesgarriak.
37. Parte-hartze publiko-pribatuko ereduak etxebizitza-parke sozialaren sustapenean.
38. Euskadiko etxebizitza «hutsen» errolda eguneratua aurkeztea, legez definituta etxebizitza hutsen kontzeptua; izan ere, egoera horretan dauden etxebizitza asko, zergak ez ordaintzeko, hilean edo sei hilean behin okupatuko dira, edota ur- eta elektrizitate-kontsumoak egingo dira «apropos», bertan norbait bizi dela frogatzeko.
39. Lagapen-erabilerako kooperatibak landa-ingurunean. Alokairu-aukera berriak txertatzea (lagapen-erabilera) tokiko usadio eta ohituretan (landa-eremuko herrietan). Etxebizitza eskuratzeko metodo berriak txertatzeko politikak.
40. Gaur egungo egoeran, beharrezkoa izango litzateke bai alokairuko bai salerosketako higiezin merkatuan, higiezinekin zerikusia duten eragiketetan, gaur egungo egoeraren plano bat aurkeztea, etxebizitzaren azalera jasotzen duena (azalera eraikia eta erabilgarria, gordina eta garbia), eta hori egitera behartzeko arau bat ezartzea. Alderdirik beharrezkoenetako bat da gaur egungo merkaturen gardentasunerako eta prezioak finkatzeko.

(*) Gai interesgarriak - V

41. Etxebizitza-sistemari eta alokairuaren merkatuari buruzko datu-baseak egitea eta garatzea (jabetzaren banaketa hirietan, edukitzaile motak, inbertsio-funtsen eragina, etab.). - Prezioak arautzeko munduko eredu azterketa konparatiboa. - Etxebizitzaren turistizazioa: arazoaren irismena eta konponbideak - Etxebizitza hutsak mobilizatzea: Europako politiken azterketa konparatiboa.
42. Etxebizitza soziala belaunaldiarteko cohousing formatuarekin izateko aukerak, eskaintza dibertsifikatzeko eta gizarte- eta familia-errealitate berrietara egokitzeko.

(*) Iruzkina - I

1. Bazkaltzeko atera behar izatea apur bat deserosoa da, hobeto da lehenago hastea eta luzatzea eta, hala, eguerdian bukatzea.
2. Denborak hobeto kontrolatzea, bertaratzen diren pertsonen parte hartzeko aukera gehiago izan dezaten. Sektoreko profesionalak ez diren arren gaiaren berri izateko interesa izan dezaketen biztanleen kolektiboetara eta inguruetara zabaltzea.
3. Lana dela eta, lehen bi saioetan bakarrik egon ahal izan nintzen, pena hartu nuen saio guztietara geratu ezinda. Edonola ere, faltan eman dut mezu elektronikoren bat, ponentzietarako estekarekin, zuzenean ikusi ez nuena irakurri edo bideoz ikusi ahal izateko. Eta beste alderdi batzuei buruzko informazio-falta ere izan zen, hala nola bazkaria. Gaur arte ez dut jakin bazkaria enkargatuta zegoela. Jakin izan banu, aldez aurretik jakinarazi ahalko nuen ezin nuela bazkarira joan, Administrazioari gastuak aurrezteko.
4. Oro har, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, euskara eta zeharkako beste gai batzuk hobetu daitezke. Hori horrela, eskertzekoa litzateke mahaian emakume gehiago egotea, eta ekitaldian euskara gehiago erabiltzea. Gainera, nire ustez, ikuspegi kritikoagoa sartzen hasi beharko genuke, ertzetatik diskurtsoa eragiteko. Etxebizitzaren arazoak eragiten dien pertsonen elkarteak edo etxebizitza «ghettizatuen» sustapenetan bizi diren kolektiboen proposamenak lagungarriak izan daitezke hobeto ulertzeko zer behar duten gure politikek are arrakastatsuagoak izan daitezen.
5. Ekitaldia egin zen tokiari buruzko argibideak ez ziren oso argiak, zaila zen aurkitzea.
6. Eskerrak eman nahi dizkizuet ekitaldi hau antolatzeagatik, hausnarketa handia eragin baitit nire etxebizitza-kontzeptuari dagokionez. Aldez aurretik eman genuenez izena, sarreran eskaini beharko lukete itzulgailua, nortasun-agiririk erakutsi behar izan gabe.
7. Denboraren kudeaketa «eznahikoa», moderatzaile zorrotzaren beharra???. Agian bi eguneko jardunaldia, alde batetik informazioa eta tailerrak....dinamizazio gehiago.
8. Eskerrak eman ekimenagatik eta jardunaldiaren gaiagatik.

(*) Iruzkina - II

9. Faltan eman dugu Euskadin etxebizitzarekin dagoen arazoaren berri ematea, gauza onak baino ez dituzte esan. Ez zen aipatu alokairu soziala bakarrik dagoela eta soldata normalak dituzten pertsonak, adina gorabehera, alokairu horretatik kanpo geratzen direla. Ez zen aipatu Gasteizen sortu den ghattizazioa. Ekitaldia labur geratu da, Montalvok oso azkar egin behar izan baitzuen aurkezpena, eta ez zen galderak egiteko denborarik izan 1. zatia amaieran. Pedro Jaureguiren zatia aspergarria izan zen; ezin da irakurri horrelako batzarretan.
10. Eskertuko nuen streaming bidez eman izan balitz, ezin izan nuelako hitzaldi guztietan egon. Bertaratu ezin izan zen jende askok galdetu dit batzarraren inguruan. Oso lagungarria izango litzateke zuzenean ikusteko aukera egotea. Eskerrik asko.
11. Ezinbestekoa da diziplina handiagoa egotea denborak esleitzen direnean. Hitzaldiak aldeztu aurretik izateko aukera. Bideoak igotzea ez da nahikoa (gainera, Bernardos jaunak gauza bat ematea agindu zuen bideoan, baina gero ez zuen eman: Bilboko alokairuak 400 euro baino gehiago ez izateko errezeta). Galderak aldeztu aurretik eta idatziz egiteko aukera ematea, ekitaldian ez dagoelako aukera handirik. Hitzaldiak zer hizkuntzatan egingo diren jakitea (beharbada ez litzateke hainbesteko jendetza egongo entzungailuak hartzeko).
12. Lehen hitzaldia (ekonomista) apur bat desagokoa izan zen, eman zuen informazioari dagokionez. Baina, aldi berean, alde positiboa ere izan zuen, eztabaida oso interesgarriak eragin zituelako.
13. Hizlari guztien katedra- edo iritzi-askatasuna errespetatuta, bermatzea gonbidatuen ikerketa- edo lan-ildoak bat datozela, edo, behintzat, printzipio bera izatea: etxebizitzaren auzia behar sozial bat da, eta politika publikoekin erantzun behar zaio.
14. Euskararen presentzia (itzulpen-zerbitzua izateko aukera ematea). Genero-ekitatea. 13 hizlarietatik, 2 baino ez ziren emakumeak.
15. Askok gustatu zaizkit bai jardunaldia bai ekimena. Oso interesgarriak dira.

(*) Iruzkina - III

16. Vienako eredua, oso interesgarria.
17. Oso garrantzitsua da hitzaldien denborak kontrolatzea.
18. Harrigarria da Europako esperientzia arrakastatsuak hirietakoak izatea, eta ez eskualdeetakoak. Eskerrik asko Euskadiko esperientzia erakusteagatik. Ondo izan.
19. Nire ustez, ez zen nahikoa jorratu etxebizitzaren kooperatiben eta cohousingaren gaia, ez behintzat jardunaldiaren programak adierazten zuen moduan.
20. Etxebizitza publikoko politikak ondasun publikoak behar ditu, ez politikarien espekulazio eta opari politika.
21. Jardunaldiaren laburpen bat izatea; atera ziren ondorio garrantzitsuenak.
22. Hitzaldiak oso onak izan ziren, oro har. Ez nuke ezer aldatuko. Ekitaldi xumea iruditu zait; hizlariak onak ziren, eta gaiak sakonki landu dira.
23. Ordutegiekin zorrotzagoak izatea. Hizlari batzuekin (apur bat malguagoa izango nintzateke), baina batez ere hasieran (goizean eta arratsaldean) eta etenaldiaren ondoren.
24. Jardunaldiaren lehen zatian gizonak bakarrik eman zituzten hitzaldiak.
25. Hobeto da goiza 15:00ak artea luzatzea, arratsaldea oso astuna egiten baita.
26. Jardunaldi hain luze batean, bazkaria barne egon beharko litzateke. Ez da batere praktikoa zerbait jateko atera behar izatea. Bestela, goizez bakarrik egitea.

(*) Iruzkina - IV

27. Aldez aurretik jakinaraztea zer hizkuntzatan egingo diren hitzaldiak. Webguneren batean argitaratzea hitzaldien edukiak (proiektagarriak eta/edo artikulua), dela ekitaldiaren aurretik dela ondoren. Galderak egiteko denbora gehiago ematea, edo saioen arteko tartetan edo aldez aurretik idatziz egiteko aukera izatea.
28. Harrigarria iruditu zitzaidan alokairuaren ikuspegi handiena gazteei zuzendua egotea, gainerako adinetako jendearentzat garrantzitsua izango ez balitz bezala. Deigarria gertatu zitzaidan, baita ere, «etxebizitza» hiritik kanpoko elementu gisa tratatu izana, bizitzari eta osasunari eragiten dien alderdi sozialean zerikusirik izango ez balu bezala. Irisgarritasun kognitiboa, etxebizitzarekin eta hiriarekin (pertsonei ingurunerik hurbilena) lotura estua duena, ez zen aipatu jardunaldi osoan.
29. Esperientzia oso atsegina izan da, topagune bikaina.
30. Etxebizitzak erosteko prezioei heldzea; beharbada, zenbateko jakin batetik gorako hipotekarik ez ematea, edo zergak garestitzea prezio jakin batzuetatik gora.
31. Lehen saiora bakarrik joan ahal izan nuen, horregatik ez ditut baloratu hurrengo saioak.
32. EAEn, etxebizitzaren parke osoaren % 10 eta % 20 artean dago hutsik. Horrek esan nahi du etxebizitza huts askok ez dutela betetzen pertsonen ostatu duina emateko funtzio soziala. Gainera, Euskadiko biztanle kopurua hazten ez denez, alde batera utzita autonomia-erkidego honetan lege finkatu nahi duten migratzaileak (etorkizuneko bizitza- eta lan-planarekin, eta ez DSBEa kobratzeko dei-efektuagatik bakarrik), azkenean, etxebizitza horien jabeek alokairu-merkatuan jarriko lituzkete, baldin eta EAeko Administrazioak hauek eskainiko balizkie: .- SEGURTASUN BERMATUA hileko alokairua kobratzean, merkatuko prezioa baino % 15 gutxiago bada ere.- SEGURTASUN BERMATUA, etxebizitza ez dela erabat hondatuta geratuko kontratua amaitzean.- SEGURTASUN BERMATUA jabeek etxebizitza berreskuratzeko, bai beraiek erabiltzeko, baita saltzeko ere, premia justifikatua izanez gero. HIRU berme sinple horiekin, uste dut etxebizitza asko jarriko liratekeela alokairuan. Ni bizi naizen udalerrian (TRAPAGARAN, BIZKAIA), 4.500 etxebizitzako parkean, 500 etxebizitza itxita eta hutsik daude, eta EZ daude alokairuan.

(*) Iruzkina - V

33. Garrantzitsua da hizlariak ezarritako denboretara egokitzea (moderatzaillearen zeregina funtsezkoa da) eta hitzaldiaren gaia jorratzea.



**Jornada "SOLUCIONES AL RETO DEL ALQUILER ASEQUIBLE" / "ALOKAIRU ESKURAGARRIAREN ERRONKARAKO IRTENBIDEAK" jardunaldia":
GOGOBEETZE-MAILARI BURUZKO INKESTA (2)**

1.- Soluciones al reto del alquiler asequible

1. VALORACIÓN TÉCNICA / BALORAZIO TEKNIKOA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1. Interés de los temas abordados / Landutako gaien interesa	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
2. Calidad de los/as ponentes y moderadores/as / Hizlari eta moderatzaileen kalitatea	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐

2. VALORACIÓN DEL INTERÉS DE CADA SESIÓN / SAIO BAKOITZAREN INTERESAREN BALORAZIOA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Sesión 1: Sesión 1: Los retos del mercado de alquiler. Claves de política económica para un mercado de alquiler asequible/ 1. Saioa: Alokairu-merkatuaren erronkak. Alokairu-merkatu eskuragarri baterako politika ekonomikoaren gakoak	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Sesión 2: Situación actual del mercado de alquiler en Euskadi y nuevas medidas de fomento del alquiler social/ 2. Saioa: Euskadiko alokairu-merkatuaren egungo egoera eta alokairu soziala sustatzeko neurri berriak	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Sesión 3: Experiencias europeas de éxito / 3. saioa: Europako esperientzia arrakastatsuak	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Sesión 4: Mesa redonda: retos y soluciones para un alquiler asequible / 4. saioa: Mahai-ingurua: alokairu eskuragarriaren erronkak eta konponbideak	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐

3. VALORACIÓN DE LOS ASPECTOS LOGÍSTICOS / ALDERDI LOGISTIKOEN BALORAZIOA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1. Sede / Egoitza	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
2. Información previa / Aldez aurretiko informazioa	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
3. Duración de la Jornada / Jardunaldiaren iraupena	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐

4. SATISFACCIÓN GLOBAL / GOGOBEETZE-MAILA OROKORRA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Satisfacción global con la Jornada	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐

5. Temas de interés para tratar en próximas jornadas organizadas por el Observatorio Vasco de la Vivienda / EAEko Etxebizitzaren Behatokiak beste jardunaldi batzuetan lantzeko proposatu nahi diren gaiak:

0/4000

6. Comentarios y sugerencias de mejora / Iruzkina eta gauzak hobetzeko proposamenak:

0/4000

UNA VEZ COMPLETADA LA ENCUESTA, DEBERÁ PINCHAR EN EL RECUADRO QUE INDICA "FIN" PARA QUE SE PRODUZCA EL ENVÍO DE LOS DATOS. DESPUÉS DE PINCHAR EN ESTE RECUADRO, SE LE REDIRIGIRÁ AUTOMÁTICAMENTE A LA NUEVA PLATAFORMA DE COMUNICACIÓN Y PARTICIPACIÓN DEL OBSERVATORIO VASCO DE LA VIVIENDA, LO QUE SIGNIFICARÁ QUE EL ENVÍO SE HA REALIZADO CORRECTAMENTE. GRACIAS POR SU COLABORACIÓN.

INKESTA BETE ETA GERO, "BUKAERA" DIOEN LAUKIAN KLIK EGIN BEHARKO DUZU, DATUAK BIDALTZEKO. LAUKI HORRETAN KLIK EGIN ETA GERO, SISTEMAK AUTOMATIKOKI ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIAREN KOMUNIKAZIORAKO ETA PARTAIDETZARAKO PLATAFORMA BERRIARA BIDERATUKO ZAITU; HORREK ESAN NAHIKO DU DATU-BIDALKETA ONGI EGIN DELA.

Fin->